ZUZENBIDERAKO SARRERA

2. PRAKTIKA: ARAUAK

Irakaslea: Aitor Bengoetxea Alkorta
Data: 2019/11/12
Ekonomia eta enpresa fakultatea
Administrazio eta Zuzendaritza Gradua 1. maila
2019/20 Kurtsoa

Egileak:

- Ane Aramburu
- Oier Berrotaran
- Irati Agirre

Eman itzazu hauetariko arau bakoitzeko bi adibide:

- **EUROPAR BATASUNAKO ZUZENBIDEA**

Maila gorenean dagoen arauak dira eta bi adibide jarri behar ditugunez, zuzentarauak(direktibak) eta erabakiak aztertuko ditugu (Europar Batasuneko hitzarmenak eta erreglamenduak ere existitzen dira)

1.adibidea) Zuzentarauak dira Estatuek lortu beharreko arau edo printzipio batzuk finkatzen dituztenak, baina Estatu bakoitzaren esku uzten dute legearen azken edukia.
Adibide bezala EUR-Lex webgunetik zuzentarau bat aukeratu dugu:
Directiva 2011/83/UE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 25 de octubre de 2011 , sobre los derechos de los consumidores,
https://www.derechoshumanos.net/constitucion/articulo35CE.htm

Adibide honek kontsumitzaileen eskubideei buruz hitz egiten du eta hainbat artikuluk osatzen dute. 1.artikuluak adibidez zuzentarauaren objektua (helburua) zehazten du, kontsumitzaileen babesa handitzeaz gain, beste helburua dela merkatuaren funtzionamendua ona edukitzea. Bestalde, 19.artikuluan Estatuari zuzentzen zaion arau bat ikusi dezakegu jarraian:

Tasas por la utilización de medios de pago: Los Estados miembros prohibirán a los comerciantes cargar a los consumidores, por el uso de determinados medios de pago, tasas que superen el coste asumido por el comerciante por el uso de tales medios

2.adibidea) Erabakiak Europar komisioak Estatu jakin batzuei zuzendutako arauak dira eta hau ez zaio Estatu guztiari zuzentzen, kide bati edo batzuei baizik.
UER-Lex orrialdetik hartutako erabakia:
Participación de la Unión Europea en diferentes organismos de cooperación para la prevención y la lucha contra el terrorismo.https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?qid=1441179536456&uri=CELEX:52015JC0032

Adibide honetan,lehen artikulua aztertuko dugu. Honek dio terrorismoa ekiditeko Europar Batasunak hurrengo organizazioetan parte hartuko duela :

-Centro de excelencia para la lucha contra el extremismo violento «Hedayah» en Abu Dhabi, Emiratos Árabes Unidos;

- Instituto Internacional para la Justicia y el Estado de Derecho en La Valeta, República de Malta;

-Fondo mundial para la participación comunitaria y la resiliencia en Ginebra, Suiza.

- **KONSTITUZIOA**

1978.ko Espainiar Konstituzioa Estatuko lege gorena da eta gainontzeko arauek berak jasotzen dituen printzipioak errespetatu behar dituzte. Bertan, pertsonen funtsezko eskubideak definitu eta antolaketa politikoaren lerro nagusiak finkatzen dira.

1.adibidea) 14. artikulua Espainiarrak berdinak dira legearen aurrean; debeku da, bada, inolako diskriminaziorik egitea jaiotza, arraza, sexua, erlijioa, pentsamoldea edo beste edozein tasun edo inguruabar pertsonal edo sozial dela eta.
Laburtuz, espainiarren berdintasuna aldarrikatzen duen artikulua da, eta diskriminazioa debekatua dagoela dio.

2.adibidea) 35. artikulua 1. Espainiar guztiek dute lan egiteko betebeharra eta honako eskubide hauek: lanerakoa, nahi duten lanbidea edo ofizioa aukeratzekoa, lanaren bitartez beren maila goratzekoa eta, orobat, beren nahiz familiaren beharrak hornitzeko besteko ordaina izatekoa; ezein kasutan ere ezin egingo da diskriminaziorik sexua dela eta.

Laburtuz, artikulu honek dioena da Espainiar guztiek dutela lanerako eta hau aukeratzeko eskubidea, gero eta postu hobea lortzeko eskubidea eta soldata minimo bat edukitzeko eskubidea, sexu diskriminaziorik gabea.

Iturria: https://egela.ehu.eus/pluginfile.php/2575596/mod_resource/content/1/Konstituzioa.pdf

- NAZIOARTEKO ARAUAK

Zenbait Estaturen arteko paktu edo hitzarmenak dira, Estatuek nazioarte mailan hartzen dituzten konpromezuak.
Kasu honetan Giza Eskubideen Aldarrikapena aztertuko dugu. Batzar Nagusiak Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsal hau egiten du . Herri eta nazio guztiek izan beharreko jomuga legez, bai norbanakoek eta bai erakundeek.

1.adibidea) https://dudh.es/giza-eskubideen-aldarrikapen-unibertsala/

17.atala

1. Pertsona orok du jabe izateko eskubidea, bakarka nahiz taldean.
2. Arrazoirik gabe, ez zaio inori bere jabegoa kenduko

17. artikulua kontuan hartuz, ikus dezakegu jabegotzaren inguruan ari dela, hau da, pertsona orok du jabea izateko eskubidea, hori ukatzen duen arrazoirik ez badago behintzat.

2.adibidea) https://dudh.es/giza-eskubideen-aldarrikapen-unibertsala/

Adibide bezala 24.artikulua hartuko dugu. Lanaren arloko eskubideaz ari da eta pertsonak lanetik kanpo aisialdirako denbora eta noiz behinka ordaindutako oporrak edukitzeko eskubidea dutela aitortzen du.

24. atala: Pertsona orori dagozkio atsedenerako eskubidea, aisiarakoa, lanaldiaren iraupen mugatua izatekoa eta aldian-aldian ordaindutako oporrak izatekoa.

- LEGEA

1.adibidea) https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-1985-16660

Ley Orgánica 11/1985, de 2 de agosto, de Libertad Sindical.

Lege organiko bat da. Lege organikoak gai zehatz batzuk erregulatzen ditu, adibidez, funtsezko eskubide eta askatasun publikoak, Autonomia Estatutuak, hauteskundeak erregulatzen dituzten arauak eta Konstituzioak aurreikusitako beste batzuk.

Zehazki aipatzen ari garen legeak askatasun sindikalari buruz hitz egiten du. 1.artikuluaren 1 puntuak dioenez, langile guztiak askatasunez sindikalizatu

daitezkeela dio, haien interes ekonomiko eta sozialak defendatzeko helburuarekin.

2.adibidea) https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2018-17773 Real Decreto 1462/2018, de 21 de diciembre, por el que se fija el salario mínimo interprofesional para 2019.

Lege dekretu baten aurrean gaude. Hauek gobernuak egiten ditu premiazko eta ezohiko kasu batean dagoela uste duenean.

Kasu honetan, gutxieneko soldata arautzen du, eta adibide bezala 1.artikuluan dio egunean 30 eurokoa edo hilabetean 900 eurotako soldata dela gutxiengoa.

- ERREGLAMENDUA

Erreglamenduak Gobernuak edo Administrazioko beste organo batzuk sortutako arau idatziak dira. Bigarren mailako arauak dira eta legeen menpe daude, oro har, legeak garatu edo osatu egiten dituzte.

1.adibidea)https://www.boe.es/boe_euskera/dias/2011/11/16/pdfs/BOE-A-2011-17887-E.pdf
3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bat egina onartzen duena.
Adibideko araua Ministroen kontseiluak egin duela dakigu, Ministro Kontseiluak bakarrik egin ditzakeelako errege dekretuak. Ikusi dugun adibidean hainbat kontratuz hitz egiten da, kontratu mistoak, obra kontratuak,Herri-lanen kontzesioko kontratua ,Zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratua,...
adibide bezala errege dekretuaren artikulu bat ikusteko, 281. artikuluaren 1 puntua aipatuko dugu, Prestazio ekonomikoei buruzkoa:
1. Kontratistak kontratuan zehazturik datozen diru-ordainak jasotzeko eskubidea du; horien artean izango da, zerbitzua ustiatzeko eskubidea benetan gauzatze aldera, zerbitzuaren erabileraren araberako ordainsari bat, zuzenean erabiltzaileengandik edo administrazioarengandik berarengandik jasoko duena.

2.adibidea) https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2008-979
Real Decreto 1720/2007, de 21 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento de desarrollo de la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de protección de datos de carácter personal.
Adibide hau ere errege dekretu bat da, eta datuen babesari buruzkoa da.
Adibidez,48.artikulua irakurriko dugu:

Artículo 48. Ficheros de exclusión del envío de comunicaciones comerciales.

Los responsables a los que el afectado haya manifestado su negativa a recibir publicidad podrán conservar los mínimos datos imprescindibles para identificarlo y adoptar las medidas necesarias que eviten el envío de publicidad.

- HITZARMEN KOLEKTIBOAK

Hitzarmen kolektiboak dira sindikatu bat edo langileen ordezkari bat(edo gehiagok) enpresaburuen elkarte edo enpresaren beste ordezkari batekin egiten duten akordioak eta bertan lan baldintzak eta arlo ekonomikoko beste hainbat gai lantzen dira.

1adibidea)http://www.araba.eus/botha/Boletines/2019/067/2019_067_01789_E.pdf
Arabako eraikuntza eta lan publikoen sektorearen hitzarmen kolektiboko artikuluen aldaketaren akordioa.
Kasu honetan CCOO eta UGT langile sindikatuak eta SEA-Arabako Enpresak egindako hitzarmena da, 2019.urteko soldata aldaketa erabakitzeko. Bertan ingeniari- eta lizentziatu-kategoriak, urteko gordina 34.004,02 euro izatea eta aparejadore-kategoria, urteko gordina 30.555,25 eurotan izatea erabaki dute.

2.adibidea)http://www.araba.eus/botha/Boletines/2018/146/2018_146_04571_E.pdf
Arabako Lurralde Historikoan beste inorentzat kirol-jarduerak egiten dituzten enpresen hitzarmen kolektiboaren akordioa.
Adibide honetan, enpresaburuen elkartea "Asociación de empresas de actividades deportivo-recreativo culturales de Álava" da eta langileen ordezkariak, ELA, CCOO eta LAB, langile sindikatuak dira hain zuzen ere.

- OHITURA

Portaera errepikakorra denean,ohitura sortzen da. Arau bezala barneratuta dagoenean
gizartean eta legerik ez baldin badago gai konkretu horren inguruan, ohitura izango da kontuan hartuko dena.

1.adibidea) seme alabak ondo zaintzea legezko ohitura bat izango litzake. Ez dago legerik, seme alabak psikologikoki ondo zaintzera behartzen zaituena. Legeak dio seme-alabak 18 urte izan arte haien kargu egin behar duzula dio, baina sozial ohitura eta arau moral bezala, behartuta zaude seme-alabak ondo zaintzera bai psikologikoki eta fisikoki eta baita haien beharrak asetzera.

2.adibidea) egun berezietan (Urte zaharrean) diskotekara dotore jantzita joaten ez bazara, gertatu daiteke diskoteka barrura sartzen ez uztea. Ez dago beste legerik, urte zaharrean dotore jantzia joan behar duzula esaten duenik, baina, pertsonak dotore joateko ohitura dute, eta gaizki ikusia dago horrela jantzia ez joatea.

- ZUZENBIDEAREN PRINTZIPIO OROKORRAK

Urteetan zehar gizartean ongi ikusiak izan diren portaeratan inspiratutako printzipioak dira, baina zer diren esatea ez da erraza. Honako hau, azken errekurtsoa da, hau da, ezin denean hierarkiaren beste punturik aplikatu erabiltzen da.

Adibidea 1) berdintasunaren printzipioa. Pertsona guztiak berdinak garela bermatzen du, nahiz eta sexua,adina,arraza,... ezberdina izan.

Adibidea 2) justiziaren printzipioa. Justizia normalean zuzenbidearekin nahasten den kontzeptua da. Epaileak zuzenbidea (arauak) aplikatzen dute, ez justizia. Justizia oso subjektiboa baita, batentzat justua dena bestearentzat ordea oso injustua izan daiteke eta.